

TOLOSALDEKO MANKOMUNITATEAK ESKUALDEKO IKASTETXEEI ZUZENDURIKO HIRI-HONDAKINEN INGURUKO BIRZIKLAPEN KANPAINA (2026-2027 ikasturtea)

1. Sarrera

Ingurumen-hezkuntza prozesu jarraia da, eta ikasleria gaur egungo eta etorkizuneko etxeetako hondakinen kudeatzailea izango dela kontutan hartuz, hondakinak modu egokian sailkatzearen garrantziaz jabetzeko eta eskola komunitateak dituen zalantzak argitzeko, Tolosaldeko Mankomunitateak LHko eta DBHko ikastetxeei zuzenduriko EKIN kanpainaren edizio berri bat abian jarri du.

2. Helburu orokorrak

- ✓ Hiri-hondakinen inguruko hierarkia ezagutzea: **murrizketa**, **berrerabilera** eta **birziklapena** azpimarratuz.
- ✓ Guztiok hondakinen arazoen konponbidean dugun protagonismoaz jabetzea, hau da, hondakinen sorreran, berrerabileran eta gaikako bilketan parte hartzea, norberak duen garrantziaz eta hondakinek suposatzen duten arazoak **kontzientziaztea** eta **sentsibilizatzea**.
- ✓ Partaideen artean, estimulu bat sortzea, **jokabide-ohituren aldaketa** eman dadin, murrizketa lehenetsiz eta sortutako hondakinak modu egokian banatuz.
- ✓ Ikas komunitate osoan, **hondakinen sailkapen egokiaren aldeko konplizitatea lortzea**, kontzienteki parte hartzen duten ingurumen kultura berriaren bozeramailea eta eragile biderkatzaile bihurtuz.

3. Hartzaileak

Ingurumen hezkuntzako kanpaina honen hartzaile zuzenak, Tolosaldeko Mankomunitatean dauden ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. edo 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 3. mailako ikasleak dira. Beti bezala, ikastetxearen arabera salbuespenak onartuko dira (ikastetxe txikietan maila bat baino gehiago...).

4. Kanpainaren garapena

Kontsumo jasagarria eta sortutako hondakinen inguruko tailer praktiko bat egitea da proposamena, mailari egokitua. Tailerrekin ondorengo ezaugarriak izango dituzte:

LH

- Iraupena: ordu bateko 2 saio.
- Lekua: 1. saiorako ikasgela, 2. saiorako eremu zabalago bat (patioa, kirol gunea...)
- Metodologia: partehartzailea
- **1. saioa:** aurkezpen interaktibo baten bidez, ondorengo atalak landuko dira.
 - o **Gure jarrerak aztertzen:** aurkezpena eta 3 “R”-ak.
 - o **Zer dago zabor poltsan?:** taldeka bilketa lerro ezberdinen lanketa.
 - o **Eta gero zer?:** edukiontzietan utzitako hondakinekin egiten dena.
 - o **Egia ala gezurra:** errepasoa galderen bidez.
- **2. saioa:** “antzara” jokoan oinarritutako taula erraldoian, galderak erantzun eta hainbat froga gaudituz.
 - o **Erosketak egiterakoan... erabili burua!:** supermerkatu baten irudia duen panel batean, erosketa egitean hondakinak murrizteko aukera egokienak aztertuko dira.
 - o **Non dago nire bikotekidea?:** hondakin ezberdinen irudiak eta horiek berrerabiltzeko aukerak.
 - o **Hondakin bakoitza bere kolorearekin:** gaikako sailkapen egokia.
 - o **Horma-irudia:** ikasitakoaren isla izango duen murala eta “Senitartekoentzako gutuna”

DBH

- Iraupena: ordu eta erdiko saioa.
- Lekua: ikasgela
- Metodologia: partehartzailea
- Saioa hiru ataletan banatuta burutuko da:
 - o **Hondakinen murrizketa**
 - **Salmenta-teknikak ezagutzen:**
 - **Zer erosi behar dugu?**
 - o **Nola berrerabili?**
 - o **Nola birziklatu eta zertarako?**
 - o **Ekonomia zirkularraren garrantzia**

5. Webgunea

Webguneak kanpainari buruzko informazio eta material guztia jasoko du: aurkezpena, izen-emate orria, egutegia, material hezigarria, argazkiak*... Horretaz gain, gaiaren inguruko informazio gehigarria emango du ikasgeletan aztertzeko, gehiago sakondu nahi duenarentzat.

KANPAINAKO WEBGUNEAK: www.ekintolosaldea.eus

* Baimena ematen duten ikastetxeetako argazkiak zintzilikatuko dira soilik, kanpainaren berri emateko.

6. Material didaktikoa

Kanpainari balio erantsia emango dio irakasleei zein ikasleei zuzenduriko material didaktikoa barneratzeak. Ikastetxe guztiek, hezitzaileek egindako bisita ondoren, ikasle zein irakasleen materialak lantzeko aukera izango dute. LHra eta DBHra zuzendutako material hori, maila bakoitzera egokitua egongo da. Horretaz gain, familien parte-hartzea sustatzeko, gurasoei zuzendutako gutuna sortuko da.

7. Hizkuntzaren trataera

Ikasleei zuzendutako materiala elebiduna izango da, baldin eta parte hartzen duen ikastetxeren batek hala eskatzen badu. Bestela, euskaraz egingo da soilik. Aldiz, webgunea eta familietara zuzendutako informazio bi hizkuntzetan joango da.

8. Aholkularitza zerbitzua

Kanpainan zehar, parte hartzen duten irakasleei bereziki zuzenduriko aholkularitza zerbitzua dago. Modu honetan, irakaslea animatu eta gaia gure bisita aurretik edo ondoren lantzen jarraitzea da asmoa. Horretarako, kanpainako telefonoa 615.749.203 (Arantxa) edo posta elektronikoa ekintolosaldea@artelatz.eus izango dituzte.

9. Izen-ematea eta egutegia

Izen-ematea kanpainaren webgunean txertaturiko formulario bidez egingo da. Egutegiak egiteko, iazkoak erabili dira erreferentzia gisa. Egutegia finkatuta badago ere, baten batek arazorik izango balu egokitutako egun edota orduekin, saiatuko ginateke moldatzen.

IZEN-EMATEA: <https://ekintolosaldea.eus/izen-ematea/>

EPEA: IRAILAK 30

10. Kanpainaren iraupena

Kanpaina, 2026-2027 ikasturteko 1. hiruhilekoan burutuko da, urriaren bigarren hamabostaldian hasi eta abenduan amaitzeko. Salbuespenak egon daitezke ikastetxearen arabera.